

## 14 – TOBILLAS-HERRÁN (2017-09-30)

### EZAUGARRIAK

**DISTANTZIA:** 19,0 km  
**DESNIBELA:** + 705 m / - 769 m  
**DENBORA:** 6 or. - 6 or. 15´

Erdi mailako mendiko etapa luze bat da hau.

Tobillasetik abiatuko gara (641 m), elizaraino igotzen den bide batetik. Zereal soroen artetik jarraitzen du bideak, aldapa gogorreko baso baten barrenera, eta, zenbait pista albo batera utzi ondoren, Gobeia haitzaren beheko aldetik ipar-ekialdetik ipar-mendebalderantz doan luzetarako pista nagusi batera irtengo gara. Igoera eta jaitsiera motzeko tarte baten ondoren, goranzko pista bat ixten duen alanbre hesi adartsu batera helduko gara (869 m) (2,4 km).

Alanbre hesia zeharkatu, eta, goiko pistatik, oholtxoak dauden bidegurutze batera iritsiko gara; han, Gr-282 bidearekin (Artzaintza Naturbidearekin) bat egingo dugu (887 m) (4,8 km).

Handik aurrera, aldapa nabarmen bat hasten da: % 20, 1.000 m-ko distantzian. Tarte hori igaro, eta Gobeako mendatera (1.086 m) iritsiko gara (6,1 km), eta, handik, 1,5 km-an, bide erraz eta ustez lau batean aurrera, Gobeia edo Arrayuelas gailurrera (1.092 m). Eguraldia ona dela, paregabeak dira bistak: Urduña, Gorbea, Kantabriako mendilerroa, Mota eta Vallegrul, baita Bóveda eta Valderejo ibarrak ere.

Alderantzizko norabidean, aurreko mendatera itzuliko gara, eta Lalastrara (Valderejo) daraman pista hartuko dugu (913 m) (10,7 km). Taberna bat dago bertan, zabalik egoten dena normalean.

Gr-282 bidea hartuko dugu. Urrun igarotzen da, Purón ibaiaren iturburuaren gainetik, eta, bihurtune zabal baten ondoren, basoan barneratu, eta jaisten hasten da, sakan eder batean barrena, Ribera izeneko herri hutseraino; hain zuzen ere, Valderejoko Parke Naturalaren barruan dago Ribera, eta, bertan, eliza bakarrik geratzen da zutik, non arte gotikoko horma irudiak dauden.

Zelai zabal bat gurutzatu, eta Purón ibaiaren sakanean sartuko gara berriro, ur jauzi eta kobazulo ederren artean. Oholtxoak dauden bidegurutze bat dago gero, zeinek Gr-282 bidetik Villafría de San Zadornilera daraman bidexka seinalatzen duten; bada, bide hori alde batera utzi, eta beherantz segituko dugu, langa bateraino, zeinak pista zabal bat ixten duen, baimendu gabeko ibilgailuak ez pasatzeko. Pistan aurrera jarraitu, eta Herránera helduko gara, Burgosera. Herri ederra da Herrán, eta, kanpoaldean, bada aparkaleku handi bat: bertan egongo da autobusa (576 m) (19,0 km).

